

celia eslava

“jolas-eremua”
“terreno de juego”

BERGARA 2014. AROZTEGI ARETOA

Erakusketa • Exposición

Uztailaren 24tik abuztuaren 10era • Del 24 de julio al 10 de agosto



ERAKUSKETA **EXPOSICIÓN**
Celia Eslava

TESTUA **TEXTO**
Jesús Mari Lazkano

ARGAZKIAK ETA DISEINUA **FOTOS Y DISEÑO**
Irantzu Sanzo eta Celia Eslava

ESKER ONAK **AGRADECIMIENTOS**
Jesús Mari Lazkano, Irantzu Sanzo, Angel Mari eta Valen Rebolé,
Manuel Escartin eta Gaur Egungo Artearen Huarte Zentroa

ANTOLATZAILEA **ORGANIZADOR**
Bergarako Udala **Ayuntamiento de Bergara**

INPRIMAKETA-EDIZIOA **IMPRESIÓN-EDICIÓN**
K3 Inprimategia

ARGITARAPENA **EDICIÓN**
Bergarako Udala **Ayuntamiento de Bergara**

LEGE GORDAILUA **DEPÓSITO LEGAL**
SS-986-2014

JOLAS-EREMUA

Jolasaren eta artearen bideak sarritan gurutzatzen dira eta batzuetan ez dakigu zehatz non bukatzen den bat eta non hasten den bestea. Aspektu ludikoa aspalditik izan da artistaren irudiaren berezko osagaietako bat. Esan dezakegu aspektu ludiko hori inolako aurreiritzirik gabe ugaritzen dela hainbat kasutan, esaterako, manierismoan, barrokoan edo surrealisten artean; halaber, ludikotasuna nabarmentzen duten artistak ere topatuko ditugu, adibidez, Arcimboldo, Magritte edo Picasso. Baina begi-bistakotasunetik haratago, bi jardueren mamiak bide tangenzialetatik garamatza.

Bata zein bestea, hau da, jolasa zein artea, adierazpena besterik ez dira; ezagutza-tresna eta bidelagun komunikatzeko, mundua mailaz maila ulertzen joateko, eta jarrera ireki, libre eta positibo batetik abiatuta errealitatearen kontzientzia hartzeko.

Gehienetan, gure oroitzapenik zaharrenak jolas-uneekin lotzen dira; gutako batzuentzat, jolas horiek haziak izan ziren, denborak aurrera egin ahala eta pixkanaka-pixkanaka, sakontasunean eta askatasunean haziz joan zen adierazpen artistiko pertsonal bihurtu ziren ernamuinak.

Elkarrengandik urrun dauden, batzuetan kontraesankorrak diren, baina gehienetan bat etortzeko zailtasunak dituzten bi elementuren arteko "aldi baterako konponbide ireki" baten emaitza baino ez da artea. "Munduan egoteak" eragiten dizkigun zalantzetatik sortutako bilaketa iraunkorra da: gizakiaren eta ingurunearen artekoa, subjektuaren eta objektuaren artekoa, baita norberaren buruarekikoa ere, dagoenaren eta ikusten dugunaren artekoa, begiratzen erakutsi digutenaren eta ezagutzen ez dugunaren artekoa, ahal dugunaren eta nahi dugunaren artekoa...

Arteak eta jolasak desberdintasun horiek ulertzen laguntzen diguten bidaia positiboa partekatzen dute; batak zein besteak bere gain hartzen dituzte aldi baterako mugak eta baldintzatze espazialak, elkarren arteko akordioa, jarraitu beharreko arau batzuk, artistak berak ezarri eta ikusleak haren "jolas-eremuan" sartzeko gako gisa onartzen dituenak. Horrela, beharrezkoak diren mugak eta berezko izaera irekiaren artean kontraesanak dituen agertokian jolasten gara jolas batean zein adierazpen artistiko batean. Batak zein besteak zalantzazko etorkizuna dute, iragarri ezin den amaiera, ezusteko konponbidea; agertoki horretan batzuetan irabazle izango gara eta beste batzuetan, berriz galtzaile, baina etengabeko gorabeherak izango ditu, betiere.

Arteak eta jolasak lur ezezagunak esploratzen dituzte material berriekin; inoiz joan ez garen tokietara eramaten gaituzte, mapa berrietara, ametsetako lurraldetara, haurtzarora edo oroitzapenetara. Haurtzaroko jolasetan barrera ibiltzean, izan ginenaz eta beharbada, oraindik ere, izaten jarraitzen dugunaz jabetuko gara, edo etengabe jolasean diren umeen moduan bizi izateari uko egitean galtzen joan garenaz ohartuko gara, eta batzuetan, arteak horiek berreskuratzea eta aberastera bultzatuko gaitu.

Artea eta jolasa sinonimoak dira berezko munduan, soilik euren den munduan; itxuraz, errealitateetik urrun dagoen mundua da baina, benetan, errealitatea eraikitzen du mundu horrek; errealitateetik bertatik jaiotzen den fikziozko agertokia; bizitzeko jarrera ludiko eta adierazpen artistiko gisa bistaratzen du bere ezkutuko arrazoia. Jolasa eta artea oso gauza serioak dira baina, aldi berean, artea inguratzen eta estimulaten gaituen sedukzio-jolasa da, bizitzari aurre egiten laguntzen diguna eta bizitza jolasa dela ulertarazten diguna, jolas libre eta irekia baina azken batean titanen jokoa...

Jesus Mari Lazkano

TERRENO DE JUEGO

Los caminos del juego y del arte se cruzan a menudo y en ocasiones, desconocemos con exactitud, donde acaba uno y empieza el otro. El aspecto lúdico ha sido desde hace tiempo, uno de los componentes inherente a la figura del artista. Podemos señalar que en ciertas ocasiones prolifera sin prejuicios, como en el manierismo, el barroco, los surrealistas e incluso encontramos artistas que lo evidencian, como Arcimboldo, Magritte o Picasso, pero más allá de las obviedades, la esencia de las dos actividades nos lleva por caminos tangenciales.

Ambos, el juego y el arte no son más que una expresión, una herramienta de conocimiento, un camino, a través del cual nos comunicamos y que nos permite alcanzar progresivos estadios de comprensión del mundo, una toma de conciencia de la realidad, siempre desde una actitud abierta, libre y positiva.

La mayoría de las veces, nuestros más antiguos recuerdos se corresponden con momentos de juego y para algunos de nosotros, esos juegos fueron el germen de lo que luego con el paso del tiempo, llegó a ser una personal expresión artística y que poco a poco fue creciendo en profundidad y libertad.


El arte no es más que el resultado de una “solución temporal y abierta” entre dos elementos distantes, contradictorios a veces, pero de difícil encaje la mayor parte de las ocasiones. Es una búsqueda permanente derivada de las dudas que nos plantea “estar en el mundo”, entre el hombre y el entorno, por ejemplo, entre el sujeto y el objeto, incluso entre uno consigo mismo, entre lo que hay y lo que vemos, entre lo que nos han enseñado a mirar y lo que desconocemos, entre lo que podemos y lo que queremos...

El arte y el juego comparten un viaje positivo que nos ayuda a comprender estas diferencias, ambos asumen sus propias limitaciones temporales y condicionamientos espaciales, un acuerdo mutuo, unas reglas a seguir autoimpuestas por el artista y aceptadas por el espectador como claves para entrar en su “terreno de juego”. De esta manera, jugamos en un escenario de contradicciones entre las precisas limitaciones y su esencial carácter abierto, un juego o una expresión artística de futuro incierto y de solución inesperada con un final impredecible, donde en ocasiones se gana y otras se pierde, pero siempre, en constante fluctuación.

Arte y juego comparten exploraciones por terrenos ignotos, con materiales novedosos, por donde nunca antes hemos transitado, nuevos mapas que nos llevan al territorio del sueño, la infancia o los recuerdos. Volver a pasear por los juegos de infancia para reconocernos en lo que ya éramos y quizás seguimos siendo o aceptar lo que hemos ido perdiendo al negarnos a vivir como niños jugando y que en ocasiones, el arte nos puede reactivar para recuperar y enriquecer.

Arte y juego que se plantean como sinónimos en un mundo propio, que solo a ellos pertenece, aparentemente lejos de la realidad pero que ciertamente la construye, un escenario de ficción que nace de la misma realidad, una expresión artística y una actitud lúdica ante la vida que desvela la razón que esconde. El juego y el arte es algo muy serio, pero también el arte es un juego de seducción que nos envuelve y estimula, que provoca sensaciones encontradas necesarias para afrontar y descubrir que la vida es juego, un juego libre y abierto pero en definitiva un juego de titanes...

Jesus Mari Lazkano



TORTOLOSA • *TABA* Portzelana • *Porcelana* 15 x 6 x 9 cm



NESKATILA • NIÑA Altzairua • Acero 95 x 50 x 33 cm





TXIRLOA • *BOLO* Portzelana • *Porcelana* 33 x 9 cm



MUTIKOA-NESKATILA • NIÑO-NIÑA Altzairua • Acero 97 x 72 x 36 cm





ZIBA • PEONZA Portzelana • Porcelana 24 x 22 cm









JOLASAREN INGURUAN • *EN TORNO AL JUEGO* Portzelana • *Porcelana* Neurri aldakorrak • *Medidas variables*




JAUZKARIA • *SALTADOR*
Portzelana eta soka
Porcelana y cuerda
17 x 6 cm



DANTZARIA • *BAILARINA*
Portzelana eta oihala
Porcelana y tela
66 x 45 x 40 cm





MONTEHERMOSOKO ERAKUSKETAREN IKUSPEGIA 2013
VISTA DE LA EXPOSICIÓN DE MONTEHERMOSO 2013
Neurri aldakorrak • *Medidas variables*

CELIA ESLAVA

Celia Eslava Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederretan lizentziatua da, eta Geografia eta Historiako ikasketak eta Artearen Historiaren graduko ikasketak egin ditu UNEDen (Urrutiko Hezkuntzarako unibertsitatean).

www.celiaeslava.es ☎ 650 469462

ERAKUSKETAK / EXPOSICIONES

2014

- Bakarkako erakusketa Aroztegi aretoan - Bergara (Gipuzkoa).
- "Artea Oinez 14" erakusketa - Iruña eta Zangoza.

2013

- "Artea Oinez 13" erakusketa - Iruña eta Tutera.
- Taldeko erakusketa ARENATZarte-ko kristalezko erakinean - Gueñes (Bizkaia).
- NON STOP taldeko erakusketa, "Jolas-eremua / Terreno de juego" instalazioarekin.
- Taldeko erakusketa "16tik 16" Kultur Leioan "Futurus -a -rum" obrarekin.

2012

- "Artea Oinez 12" taldeko erakusketa.
- "Jolas-eremua / Terreno de juego" erakusketa Mayorga galerian - Suhuskune.

2011

- "Arte por un Sáhara Libre / Sahara Aske baten aldeko artea" taldeko erakusketa.
- "L'Art au féminin V" taldeko erakusketa - Donibane Garazi.

2010

- "Insalarte" taldeko erakusketa - Barakaldo.
- "Insalarte" taldeko erakusketa - Durango.
- "Insalarte" taldeko erakusketa - Gernika.
- "Paesaggi di Sale / Paisajes de Sal" taldeko erakusketa "Accademia di Belle Arti de Palermo" ren eta Euskal Herriko Arte Ederretako fakultatearen artean - Chiesa de San Mattia ai Crociferi de Palermo (Sizilia - Italia).

2009

- "Paesaggi di Sale / Paisajes de Sal" taldeko erakusketa "Accademia di Belle Arti de Palermo" ren eta Euskal Herriko Arte Ederretako fakultatearen artean - Bilbo.
- "Sólido/Likido 09" taldeko erakusketa Jossette Dacosta-ren galerian - Donibane Garazi.
- "Sólido/Likido 09" taldeko erakusketa Euskal Herriko Unibertsitateko erakusketa-aretoan.
- Cai Guo-Qiang "Crea tu propio museo" egitasmorako "Museo desplegable" proiektuan parte hartzea Guggenheim museoa - Bilbo. Aukeratua eta ikusgai jarria 2009ko irailean.

2008

- "L'Art au féminin II" taldeko erakusketa - Donibane Garazi.
- Taldeko erakusketa Burlatako kultur etxean (Nafarroa).
- Taldeko erakusketa CAJA VITALEko Araba gelan - Gasteiz.

2007

- Taldeko erakusketa Reciclarte galerian - Iruña (Nafarroa).

2006

- Taldeko erakusketa Ormulú galerian - Iruña (Nafarroa).
- Taldeko erakusketa Reciclarte galerian - Iruña (Nafarroa).

2005

- Taldeko erakusketa Uharteko kultur etxean (Nafarroa).
- Bakarkako erakusketa Olatzeko kultur etxean (Nafarroa).

celia eslava

“jolas-eremua”
“terreno de juego”

Ordutegia:

asteartetik ostiralera
larunbatak

18:00 - 20:30

12:00 - 14:00

18:00 - 20:30

igande eta jaiegunak

12:00 - 14:00



AROZTEGI
ARETOA



**Bergarako
Udala**

